

# erein *karria*

## oroimenean barrena

Beldurgarria da gizakiak irits dezakeen baldarkeria. Norberak aske ikusten du bere burua halako egoeretatik. Baina baldarkeria horiek gertatu egiten dira. Norbanakoa desegin eta haren gainean gizendutako abstrazio baten izenean egin ohi dira krimenik handienak.

Halako kezka eta ideiak liburu askotan azalduko dira, saiakeratik eleberriraino. Gutxitan lortu dute, ordea, bi liburu llabur bezain indartsu hauek eragindako efektu aparta.

Eleberririk dira biak, eta gaiaren eta giroaren tratamendua giharra eta zuzena da. Ez dago horietan adornurik edo itxuratarako lekurik. Morrailarik ez. Narraziogintza maila gorenean baino ez. Literatura paregabea.

Irakurzaletasunaz hainbeste hitz egiten den garaiotan, soilik esan, inoiz ez dela irakurtzeko gogorik haziko, istorio potente batek eragindako zirrarak gabe. Horixe da bi eleberritxo hauek eskaintzen dutena. Ez zaituzte indiferente utziko.



*Ezezaguna helbide honetan.*

**Kressmann Taylor**

Itzulpena: Ramon Etxezarreta


Orr: 72

Saila: Oroimenean barrena

ISBN: 84-9746-139-8

Artearen merkaturaren negoziokide diren bi adiskideren istorioa kontatzen da liburu honetan: Martin Schulse da bat, alemana, eta Max Einsestein bestea, estatubatuar judua. Kalifornian bizi dira biak, baina 1932an Martinek Alemaniara itzultzea erabakitzen du. Une horretan bien arteko gutun trukea hasten da, eta berehala sumatzen da, harreman profesionalaren eta pertsonaren atzetik, Alemaniako egoera politikoaren itzala.

Liburu ameslari, zorrotz, ezin iragarritzko hau gertaera literarioa bihurtu da, nazismoaren kontrako mezu lazarria. Gaur, berriz ere, irakurlearen interesa eta jakinmina piztu du hizkuntza askotan argitaratu den nobela honek. Demagogiarik gabe, zuzen-zuzen idatzitako istorioa da, Alemania naziaren tragedia banakakoa eta kolektiboa deskribatzen duena.



*Lorategi beldurgarriak.*

**Michel Quint**

Itzulpena: Josu Zabaleta

Orr: 64

Saila: Oroimenean barrena

ISBN: 84-9746-140-1


*Lorategi beldurgarriak* Frantzia azken berrogei asteetan gehien saldu diren liburuetako bat da, ahoz aho zabaldu den gertaera baten emaitza. Michel Quintek, biografia kutsu handia duen lan honetan -haren aita eta aitona soldadu izan ziren XX. mendeko bi gerra handietan- gure kontzientziaren erdi-erdian jotzen du, sen primarioenak dauden lekuan, onaren eta gaizkiaren ideiak, eta, horren ondorioz, gure jokamoldea, zehazten diren gure horretan.

Oroitzapenari eta memoriari, eta barreak eta umoreak beldurraren eta etsipenaren aurka duten ahalmen harrigarriari eskainitako omenaldi batean, kontalariak bere aitaren zaletasun bitxiak -pailazoz jantzi, edozein eratako haur jaietan antzeppen tristeak egiteko- lotsatutako haur baten bizikizunekin hasten du bere istorioa. Urte batzuk geroago, haurra mutil gaztea denean, osabak aitaren jokamolde bitxiaren benetako arrazoiak azalduko dizkio. Une horretan, irakurlea amasarik gabe uzten duen indarra hartzen du kontakizunak, kontakizunaren trinkotasunak eta laburtasunak areagotzen duten indarra.

*Krokodiloa ohe azpian* liburuak jaso du 2003ko **Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala**. Zorionak Mariasun Landari.

Atxagaren ETIOPIAK 25 urte bete ditu. 1978an argitaratu zen. *Etiopia* euskal poesiagintzako mugarri nagusienetako bat da. *Poemas & Híbridos* liburuaren itzulpenak jaso du duela gutxi Italian "Cesare Pavese" sari ospetsua. Zorionak Atxagari.

## Lizardi Saria



"Gaur egun berezia da, saria jaso behar dugulako, eta zer gertatzen den gelan kontatu beharko dut astelehenean, andereño Mertxek asteburuan zer egin dugun galdetutakoan. Bide batez, Julen Alkortak ere entzun dezala, gure aita idazlea dela jakiteko.

Orain, kultur etxera iritsi berriak, hemen gaude zain, areto nagusian, zutik, ekitaldia noiz hasiko, laurok. Aitak eskutik heldu dio amari eta musu eman dio. Izar eta ni bien artean jarri gara, atzetik, hantetatik helduta. Amak begiratu eta irribarre egin dit. Aitak eskua buru gainetik pasatu eta kalparra harrotu egin dit. "Kanpeon" esan dit belarrira".

# Auskalo bumeran



*Kuxkuxero press*  
**Pako Aristi**

Orr: 96  
Urtea: 2003  
Marrazkilaria:  
Concetta Probanza  
Saila: Auskalo Bumeran  
ISBN: 84-9746-135-5

"Aldizkariaren hesteetan daude bi neskatoak. Ezkerrean zerrenda luze bat ageri da, honako hitzokin: karpetak, zerrenda, albisteak, pantaila gaina, e.a. Goian, berriz, leihatilatxoak daude, beste zerrenda luze batekin: edukiak, ikusi, itxi, eraman, inprimatu, e.a. Enara galduta dago, baina hor dauka Mireia, erne-erne dena aztertzen. Gure bizitzako une batzuetan itsutzen bagara, beti dago lagunena bat argia ikusten laguntzen diguna.

Mireiak albisteak jartzen duen lekuan zapaldu du sagua; ondoren ikusiren gainean jarri eta hantxe zapaldu du hatzaz. Orri berri bat zabaldu du pantailan. Enara liluratuta dago: Hantxe daude aittonak egun hartarako aukeratu eta idatzi dituen albiste guztiak".



*Logurepeko munstroak*  
**Arrate Egaña**

Orr: 136  
Urtea: 2003  
Marrazkilaria:  
Juan Luis Landa  
Saila: Auskalo Bumeran  
ISBN: 84-9746-148-7

"-Hori herri guztiak daki. Orain dela hiru urte, zure aitona sorbaldatik erori zinen eta kolpe bat hartu zenuen buruan. Zu itsu gelditu eta Julianek herritik alde egin zuen.


Zurrut luze bat ematen dio izozkiari. Berta harrিতa gelditu da, inork ez baitio itsutasunaz naturaltasun horrekin hitz egiten, ezta istripu hartaz ere. Bai, horrela gertatu zen: aitona sorbaldeetatik erori eta dena betirako ilundu zen. Gero aitona negarrak entzun zituen, baita familia osoaren negarrak ere. Hilabete pare bat geroago aitona desagertu egin zen".

Berta itsuaren istorio hunkigarria.

# — USOA —

**Patxi Zubizarreta**

**Elena Odriozola**



*Lehen kanpamendua*  
**Patxi Zubizarreta**

Orr: 112  
Urtea: 2002  
Marrazkiak: Elena Odriozola  
ISBN: 84-9746-014-6

Usoa bere lehen kanpamendura doa, Irati lagun mina-rekin. Suaren inguruan eseri nahi dute, eta neska-mutil gehiago ezagutu, eta, agian, musuren bat eman edo jaso. Aspaldiko lapur batzuen altxorra ere aurkitu nahi lukete. Baina ezin dute inondik ere imajinatu gauza horiek guztiak baino askoz gehiago dituztela zain (pertsonea harrigarriak, desagertak, lapurretak), eta lehen kanpamendu hori ezin izango dutela inoiz ahanzi.



*Zelatan*  
**Patxi Zubizarreta**

Orr: 112  
Urtea: 2002  
Marrazkiak: Elena Odriozola  
ISBN: 84-9746-015-4

Irati, Usoaren lagun mina, ez da betiko Irati. Arraro baino arrarago dabil azken boladan. Ikasturte hasiera ere oso gorabeheratsua gertatu zaie. Horregatik guzti-gatik erabaki du Usoak, Manexekin batera, Irati zelatatzea: bitxi batzuekin zer egiten duen jakin nahi dute, edo zer gertatzen zaien haren gurasoei, edota, azkenik, zertan dabilen mutil ezezagun batekin... Eta hori guztia jakin bitartean, uste-kabea, Manex Usoaren lagun mina bilakatuko da.



*Karpeta morea*  
**Patxi Zubizarreta**

Orr: 106  
Urtea: 2003  
Marrazkiak: Elena Odriozola  
ISBN: 84-9746-106-1

Egun gogorak urte berrikoak Usoarentzat. Garajeko jaia uste baino okerrago amaitu da. Asteburu zigortuta igaro behar izan du. Hori gutxi balitz, amaren ordenagailuan karpeta bat topatu du, amaren gaumahaian karpeta more bat, eta bietan hainbat sekretu deskubritu ditu Usoak. Berari buruzko sekretuak... Gurasoak gorroto ditu. Izena aldatzea erabaki du. Kasai izango da aurrerantzean, eta zapi bat jantziko du buruan.



*Bidaia kilikagarria*  
**Patxi Zubizarreta**

Orr: 96  
Urtea: 2003  
Marrazkiak: Elena Odriozola  
ISBN: 84-9746-132-0

Urtebetetze oparia izango da Usoak Eskandinaviara egingo duen bidaia. Familian joango dira. Baina autobusean era guztietako bidaiariak ezagutuko dituzte: jasanezinak batzuk, misteriotsuak beste batzuk, eta izango da bidailagun erakargaririk ere... Hala bada, bidaia poetikoa izango da gau zuria mirestea, arriskutsua izango da hango bihurtze estuetan ibiltzea, lunefull edo zoragarria izango da, gidariaren hitzetan, hango hiri nahiz paisaia lularagariak ikustean. Baina hasieratik azken-azken unera arte bizia, umoretsua eta, batez ere, kilikagarria gertatuko zaio Usoari, urtebetetze opari gogoangarria.

# Perzebal saila



*Horrelakoa da bizitza, Carlota Gemma Lienas*  
Itzulpena: Antton Olano  
Orr: 184  
Urtea: 2003  
Saila: Perzebal, 5  
ISBN: 84-9746-136-3

Ramonek moto istripu larria izan du eta klinikan dago. Mutil huraxe du gogoko Carlotak eta eskolatik klinikara eta handik etxera dabil saltoka. Etxeko giroa, ordea, ez da ezagutu duen onena: gurasoak banandu egiten zaizkio Carlolari. Aitarekin geldituko dira Carlota eta Marc bere anaia.

"Izan ere, goiz hartan bertan, jolas-denboran, berari eta Bertari nire gurasoen erabakiaren berri kontatzeko burugabekeria egin bainuen, nire mihi-luze honek! Ez dakit zergatik egin nuen ere. Egia esan, ez Pau ez Berta ez ziren nire lagun-taldekoak, eta ez nien inolako azalpenik zor. Biak errepikatzaileak dira -ikastalde-

ko zaharrenetakoak, beraz; Ramon bezala-, eta hamazazpi urte dituzte. Mireiak eta biok, berriz, hamalau ditugu, eta gaztetxoenetakoak gara. Horregatik segur aski, Ramonek ez dit kasu handirik egin inoiz, ez joan den urtean, talde desberdinetan ginelarik, ez aurten, talde berean bagaude ere. Eta, jakina, istripua eta gero, Ramon ikustera joateko, hoberena Bertarengana hurbiltzea izango zela pentsatu nuen. Hain arraroa zatekeen, bestela, ni bakarrik joatea. Agian horregatik kontatu nizkien lagunminei baino kontatzen ez zaizkien gauzak. Orain, baina, damu nintzen kontatu izanaz".




*Ohe elurtuan lo egin zuen mutikoa Henning Mankell*  
Itzulpena: J. M. Mendizabal  
Orr: 256  
Urtea: 2003  
Saila: Perzebal, 6  
ISBN: 84-9746-149-5

"Rock errege batek gitarra jotzen jakin behar du. Artean ez zegoen erabat seguru zer aukeratu behar zuen. Rock errege izatea edo kanpin-karabana saltzaile izatea. Dibertigarriagoa zen rock errege izatea, noski. Oholtza baten gainean batera eta bestera labaintzea, gitarra eskuan duzula. "Hound Dog" kantatzea mikrofono baten aurrean. Eta oholtza azpian jendetza garrasika, batez ere neskak, berari iletik eta arropatik tira egin nahian.

Aldi berean, pentsatu zuen aspergarri samarra izan behar zuela inoiz bakerik ez izatea. Beti argazkiak egin beharra. Inoiz betarik ez izatea ohean uzkurto eta amets egiteko.

Bere buruari galdetu zion rock errege batek inoiz umekierarik egin ote zezakeen. Kezka sortzen zion horrek. Argitu egin beharko zuen hura".

# Poesia



*Poeta New Yorken Federico García Lorca*  
Itzulpena: Juan Luis Zabala  
Orr: 128  
Urtea: 2003  
Saila: Poesia  
ISBN: 84-9746-137-1

# Saiopaperak



*De la Ética y el Nacionalismo José Mª Setién Alberro*  
Orr: 136  
Urtea: 2003  
Saila: Saiopaperak  
ISBN: 84-9746-112-6

En este nuevo libro de Mons. SETIÉN se ofrecen tres temas de indudable actualidad: El primero trata de la dimensión ética de la política. El segundo, de unas aproximaciones éticas al nacionalismo. El tercero recoge, bajo un epígrafe titulado Nacionalismo y Terrorismo, dos trabajos: el primero es una amplia reflexión crítica sobre un escrito de Mons. F. SEBASTIÁN, Arzobispo de Pamplona. El segundo ofrece una lectura también crítica de la conocida Instrucción Pastoral de la Conferencia Episcopal Española sobre el terrorismo en España. El lector percibirá, sin demasiado esfuerzo, la preocupación común que atraviesa, de parte a parte, los cuatro capítulos en los que se articula esta nueva aportación del Obispo Emérito de San Sebastián, así como su intención de sugerir la fundamentación ética y las condiciones básicas para un diálogo constructivo entre los diferentes posicionamientos actuales sobre el problema vasco.

Carlos Abaitua.

# Bioleta saila

Maitasuna eta harremanak orpoz orpo dabiltzanean. Gazteak dira eleberrri hauetako protagonistak eta esperientzia nagusiak biziko dituzte.



*Kandinskyren tradizioa Ramon Saizarbitoria*  
Orr: 88  
Urtea: 2003  
Saila: Bioleta Saila  
ISBN: 84-9746-107-X

"Behin batean, amak liburutegitik jaso ohi zituen liburuen artean, "Kandinsky eta ni" izenburukoa atzeman nuen, pintorearen alargunak idatzirik memoria liburu bat, zeinean oso anekdota bitxia ageri den. Dirudenez, antzinako ohitura bati jarraiki, tsarren Errusian, Urtezahar eta Urteberri arteko gauean, neska gazteak kalera ateratzen ziren aurkitzen zuten lehendabiziko gizonari izena galdetzeko, ustea baitzen hura bezala deitzen zen batekin ezkonduko zirela. [...]

Anekdota irakurri nuenean abenduaren lehendabiziko egunetan geunden eta, auskalo zergatik, horrelako eraldiak izaten baititugu, zera sartu zitzaidan buruan, Errusian balekoa zenak balio behar zuela hemen, eta erabaki nuen neuk ere, Kandinskyren emazteak bezala, saioa egin behar nuela".

Hauxe da liburuaren hasiera distirantea. Aitor eta Manu: bi izen, bi izakera, bi sentipen, Mirenen bizitzan. Aitor ala Manu izan, egiazkoa ala fantasiazkoa izan, maitasuna bera da maite duguna.




*Tximeleta tatuajea Philip Pullman*  
Itzulpena: Koro Navarro  
Orr: 208  
Urtea: 2003  
Saila: Bioleta Saila  
ISBN: 84-9746-150-9

Jenny ez zen Chris bezala sentitzen. Maitaldi hura baldarra, azkarr eta tristetxoa ere iruditu zitzaion Jennyri; baina bazen ikasteko denbora, eta hunkigarria gertatu zitzaion Chrisen samurtasuna. Jenny berarekin geratu zen larunbatean eta baita gauean ere, eta dena ondo joan zen; baina igande-goizean, Jenny Chrisen besoetan lo zegoela, bien artean ezpata bat bezala erori zen gauza bat gertatu zen.

Oxfordeko polizia arduratuta zebilen aspaldi hartan hirian mugitzen zen droga-kopuru handiarekin, eta egunsentian atxiloketa-sail bat egitea erabaki zuen, zerikusirik izan zezaketen guztiengana joaz; baita etxe okupatuetan bizi zen jendearengana ere. Horretan oker zebilen polizia ordea. Derekek eta Olliek noizean behin kanabisa erretzen zuten arren, salerosketan ez ziren sekula ibili; eta Jennyk berak ez zuen Tansyrenaz geroztik drogarik ukitu. Baina horrek ez zuen ezer aldatzen. Jenny Derek eta Ollie eta beste ehunka batzuekin eramango zuten, baina, jakina, ez zegoen han.

# Larrepetit, Euskadi



*Larrepetit*  
**Pello Lizarralde**  
 Orr: 128  
 Saila: Narratiba  
 ISBN: 84-9746-017-0

Abel, Joxe eta Lainez dira nobela honetako hiru pertsonaiak. Abel gaztea da eta Joxe edadetuagoa eta hitz gutxikoa. Gazte urduria bata, eta aurpegi-ilun eta eskarmentu handikoa bestea. Biak dira iheslariak. Preso zeuden eta kalabozoko ataritik ihes egin dute. Frantziako mugara iritsi nahi dute, eta helburu hori lortu nahian bidexka, malkar eta muino asko zeharkatu beharrean aurkitzen dira. Batetik bestera inguruko herrietan saltzaile dabilen Lainezek hurbilduko ditu autoz muga ingururaino. Han, ordea, guardia zibilen "altoa"aren ondoren Joxeren laban-kadak gauzak larritzen ditu. Narrazioaren urrats xumeena neurtuta dago, baita irakurlearengan duen eragin fisikoa ere: iheslariek zapaldutako belarra, bidean topatutako lagunekin gurutzatutako solasa edo zotza soiltzeko Joxek erabilitako labana, gertakizun denaren sentipen urduria bihurtzen dira.

## SENTIPENEN NARRAZIOA: PELLO LIZARRALDEREN *LARREPETIT*EN INGURUAN

FCO. JAVIER ROJO COBOS  
 (UPV-EHU)

Ia-ia baieztapen kategorikoa den iritzi bat emanez hasiko naiz lerro hauek idazten: Pello Lizarralde da azken hogeitazko euskarazko literaturak duen egile interesgarrienetako bat; nire iritziz, kanonikotzat hartzen diren aldi horretako idazle hirukotearen maila berean dago: Atxaga, Lertxundi eta Saizarbitoria.

Pello Lizarralde Zumarragako gipuzkoar hirian jaioa da, 1956an, eta ia hogeita bost urte daramatza euskal irakurleak bere narrazio lanekin txunditzen. Ibilbide horretan, ondoko obra hauek aurkitzen ditugu:

–*E pericoloso sporgesi*, “Zuri-beltzean” azpiztitulua duena, 1984koa.

–*Hatza mapa gainean*, 1988koa.

–*Un ange passe*, “Isilaldietan” azpiztitulua duena, 1988koa.

–*Larrepetit*, 2002koa.

Euskal letretan maiz ageri den egilea da beraz, gutxi gorabehera bost urtez behin kontakizun liburu bat argitaratzen duena. Liburuak normalean laburrak izaten dira (ehun orri inguru, ez gehiago), baina argi uzten dute, sendoa eta garrantzitsua izateko, ez dela obra ugari behar.

Pello Lizarralde ez da behar bezain ezaguna, eta izena oso literatura zirkulu jakinetan baizik ez da ageri. Bi arrazoi nagusik agertzen dute hori.

Alde batetik, Lizarralderen lanek ez diete amore ematen euskarazko literaturaren merkatu bereziaren eskakizun-

nei. Idazkera trinkoa du, irakurleari arreta berezia eskatzen dio, eta irakurleak, gainera, oso obra pertsonal batean sartzeko prest behar du egon. Pello Lizarralde, argi dago, ez du metro geltoki batetik bestera hamabost minututan entretenimenduzko nobela baten orritxo batzuk irakurtzen dituen irakurle batentzat idazten. Era berean, euskararen irakaskuntzaren inguruan sorturiko merkatuentzat ere ez du idazten; izan ere, merkatu horrek finkatzen ditu euskal literatura produkzioaren parte handi baten ezaugarriak. Eta, batzuetan, euskal literatura produkzioa hizkuntzaren irakaskuntzaren lagungarri izan daitezkeen testuek osatzen dutela ematen du.

Bestalde, Pello Lizarralde autopromozioa, agerpen publikoak eta polemikak saihesten ahalegintzen da. Eta gauza jakina da: komunikabideetan ez bazara agertzen, ez zara existitzen. Literaturari dagokionez, idazleak egin behar duena egiten du, hau da, idatzi, dakien ondoena, eta kasu honetan oso ondo daki.

Hala bada, Pello Lizarralde gurtzako egilea bihurtu da kasik; bakarra da ia euskarazko literaturan izen hori merezi duena, eta beraren irakurleak nondik edo handik literaturarekin lotura profesionala duten pertsonak izaten dira.

Lizarralderen obrek badituzte bateratzen dituzten ezaugarriak. Zentzu horretan, harrigarria da egile honen obrak duen literatura koherentzia. Bere lana osorik hartuta, Lizarralderen

narrazioaren oinarriak gero eta biribilagoak gertatzen dira. Eta obra bakoitzak aurreko produkzioaren emaitza eta sintesia da. Azken liburua, hemen aztertuko dudana (*Larrepetit*), ibilbide horren adibide pribilegiatua da.

*Larrepetit* eleberriak xehetasunez kontatzen du bi pertsonaiaren ihesaldia, guardia zibilak udaletxe bateko ziegetatik beste leku batera eraman behar dituztean itzuri egitea lortzen baitute. Hasieran, badago pentsatzea intrigazko eleberri baten aurrean gaudela, baina hain zuzen ere intriga da eleberri honetan gutxiena interesatzen dena.

Bi pertsonaiak, Joxe, “ijitoa” deitzen dutena, eta Abel, ezizenez “Larrepetit” (euskaraz, matxinsaltoen erako animaliak izendatzeko dagoen izenetako bat, besteren artean), ihesean abiatzen dira, muga aldera, Frantziara igarotzeko asmoaz, hasieran hori oso garbi ez badago ere. Ihesa gertatzen den lekua (Nafarroako iparralde) eta ekintzaren denbora (hirurogeiko hamarraldia eta hirurogeita hamarrekoren hasiera) modu lausoan aurkezten dira, aztarren bidez batez ere, itxuraz garrantzirik gabeko xehetasunen ondorio diren aztarren bidez (auto baten matrikula, adibidez). Lizarralderen kontagintzan ordea xehetasun horiek funtsezkoak dira kontakizunak garatzen diren denbora-espaziozko esparrua finkatzerakoan.

Ihesaldi honen kontaketa hirugarren pertsonan egiten da, eta orainaldian, kontalari inpersonal batekin; kontalari horrek pertsonaien sentipenetan zen-

tratzen du bere ikuspuntua. Kontalaria teoriarik objektiboa da, eta pertsonaiek senti dezaketena, eta, batez ere, ikusi eta aditu dezaketena besterik ez du kontatzen, arreta handiaz eta xehetasun askorekin. Kontaketa fokotzen dituen pertsonaiek ikusten eta aditzen dutena ikusten eta aditzen du kontalari horrek. Inoiz, eta salbuespen gisa, kontalaria iristen da pertsonaiek pentsatzen dutena kontatzera. Urruneko kontalaria da, hotza, interpretatzen ez duena, eta, jakina, ez du inola ere konaturikoa balioesten.

Pertsonaiek antzematen dutena ia huts-hutsik kontatzen digularik, kontalariak ez du istorio honetan azaltzen diren gertaeren aurrekarien laburpenik egiten. Irakurleak, beraz, ez daki zein izan den pertsonaia hauen historia, iragana, zergatik atxilotu dituzten. Era berean, ez daki zergatik hartu duten ihes egiteko erabakia, egin duten delitua ihesa merezi izateko bezain larria den ala ez, nahiz eta, Abelen kasuan, delitu arrunt batengatik atxilotu dutela ematen duen. Pertsonaiaren batek hitz egiten duenean bakarrik, hau da, beste pertsonaia batek haren hitzei antzematen dienean, iristen da irakurlea baten edo besteari iraganaz zerbait jakitera. Kontakizun teknika horren eraginez, pertsonaiak orainaldi erabatekoan bizi direla da irakurlearen irudipena, iraganik gabe, historiari gabe, oroitzapenik gabe ia, eta, kontalariarekin batera, gauzak gertatu ahala, gertatzen lekuko dela.

# literatura saria 2003

**JUAN LUIS ZABALA, BERRIA.**

**Larrepetit argitaratu ondoren, begiradaren garrantzia azpimarratu zenuen.**

Jende askok istorioak aukeratzen ditu, baina niri ez zaizkit istorioak interesatzen. Ezta ideiak ere. Zer interesatzen zait orduan? Tonua. Eta zalantzak, eta kezka batzuk, obsesio batzuk. Idazten hasi aurretik zeri erreparatu aukeratu behar da, eta nik txikiari erreparatzeko joera daukat. Txikitatik abiatzea iruditzen zait niri

garrantzizkora iristeko biderik seguruena, ongi begiratzen jakinez gero. Ideia handien izenean idatzitako liburuak, aldiz, berehala ahazten dira, irakurlea lasai uzten baitute, bertan goxo. Niri ez zait interesatzen irakurlea lasai uztea.

**Zalantzaren laudorioa egiten duzu, beraz.**

Nik zalantza asko ditut, kosta egiten zait satisfakzioa lortzea, eta besterik ezin dut transmititu. Nobela oso egokia da dudak plazaratzeko. Tesirik ez, ideiarik ez, gauza

handirik ez... Niri interesatzen zaidan literaturak galdera eta kezka besterik ez dauka. Gelditzeko eta pentsatzeko aukera ematen du. Eta handitik hasita hori lortzea oso zaila da.

**Oso nobela zinematografikoa dela diote Larrepetit-en kritika gehienek. Zer iritziko zenioke zinemagileren batek Larrepetit zinemara eraman nahi izateari?**

Niri ondoko lanak ez zaizkit gustatzen. Gauza horiek gaizki ateratzen dira gehienetan. Hala ere, zer zuzendari den...

**Victor Ericcek esanez gero...**

Orduan bai... Ericce etorri gero, baiezkoa emango nioke, baina dena aldatuko balu ere.

**Beste joera batzuk ari dira nagusitzen...**

Ni nazka-nazka eginda nauka denak dibertigarri izan behar horrek. Dibertigarria, arina, freskoa, magikoa... Tripako mina jartzen zait horiek entzutean. Magia Txan magoak egiten du. Literaturaren minduan zer edo zer bilatzen duenak ez du hor aurkituko. Txuma Murugarrenek BERRIAN horretaz idatzi zuenarekin guztiz ados nago.

Iparralderako ihes honek neurri ia mitikoak hartzen ditu. Frantziako mugara iristea, beste aldera igarotzea, da helburua, baina irakurleak beti irudipena du muga zerbait gehiago dela. Pertsonaiak muga hori gurutzatzen iritsiko balira, Iparralderantz jarraituko luketela iruditzen zaio, Muga gurutzatu eta Beste Aldera igarotzeko. Itxuraz helburu mugatua duen ihesa da, baina, Akiles eta dortokaren mitoan bezala, iristekotan daudela ematen duenean, aldatu egin da helburua. Helburuak markatzen du norabidea, baina inoiz ez da azken xedea izatera iristen.

Ihesaldi horretan, Joxek eta Abelek Lainezen laguntza izango dute. Lainez drogeriako produktuen saltzailea da, bere Dodgean nafar herriak korritzen dituena; Bilboko matrikula du, eta bost zenbaki BI letren atzean. Pertsonaia horrekin Joxe eta Abelek gertatzen den gauza bera gertatzen da. Badakigu zer egiten duen agertzen den uneetan, zeri antzematen dion, eta, batzuetan, zer pentsatzen duen. Baina, horrez gainera, badakigu sekretu bat duela, arrastoren bat baizik ez dugun sekretua: pakete misterioitsu bat ematen dio tren geltoki bateko langile bati. Sekretu hori areago handitzen da Lainezek eta tren geltokiko langileak elkarrekin trukatzeko dituzten hitzekin. Lainez mintzatzen da aurrea:

–Eta herri honetan hitaz gain ba al dago gure aldeko beste inor?

–Bai, baina hi lasai, behar denean jakinen dituk gauzak zehatzago (32. orr.)

Bada misterio bat, kontaturiko gertaeren aurrekoa, baina datu horiek besterik ez dakizkigu, eta irakurlearen irudimena bide askotatik zabaltzen da: zer dago Lainezek bere autoan ordezko gurpilaren ondoan ezkutaturik zeraman paketea? Zertan dabilta pertsonaia hauek? Konspirazioren bat dela ematen du, baina ez gaude ziur. Galdera horiek erantzunik gabe geratuko dira.

Istori honetako funtsezko bi narrazio ildoak, Joxe eta Abelen ihesa eta Lainezen lan bidaia, elkarren paraleloan joango dira harik eta bi ildoek guztiz ustekabearen topo egiten duten arte.

David Lodgek, ustekabeaz hizketan, ondorengo hau zioen *Fikzioaren antzea* liburuan (*El arte de la ficción*, Ed.

Península, Bartzelona, 1999):

“Ustekabea, egiazko bizitzan espero ez ditugun simetriekin harriduta uzten gaituena, egiturazko baliabide agerikoa gertatzen da fikzioan, eta ustekabearekin gehiegi fidatzeak arriskuan jar dezake kontaketa egiantzekotasuna”. (224 orr.)

Baina Pello Lizarralde ustekabe hori azaltzen saiatu ere ez da egiten. Eta horrek, hots, topaketa argumentuaren jirabarekin justifikatzen ez ahalegintzeak, itxuraz harrigarria den emaitza du: ustekabe topaketaren egiantzekotasun erabatekoa. Gertaerek modu guztiz naturalean dakarte topaketa hori, hala ko kontalari demiurgo batek manipulatzeko gaituelako sentipenik gabe. Ustekabea egiantzekoa da kontalaria ez delako saiatu, ez ustekabea arrazionalizatzen, ez ustekabearen esentzia ezkutatzeko.

Iheseko kontaketa honetan paisaiak garrantzi erabakigarria hartzen du, hala ko eran non istorioko beste pertsonaia bat izatera ere heltzen den. Paisaia, alabaina, ez da normalean paisaia deskribatua izaten. Paisaia kontatua da oroz gain. Pertsonaiek sumatzen dituzten sentipenak dira paisaia horren sorreraren funtsezko elementuak. Hala, paisaia menditsua, bide, erreka eta herrixkez bete, udaberriko eguzkiaren izpiek nekez hausten duten laino mehe batek estalia, pertsonaiek sentitu ahala iristen zaio irakurleari. Sentipen multzo horren emaitza gisa koadro inpresionista bat sortzen da, bizia eta mugikorra, pertsonaien esperientziez, ez kontalariaren hitzez osatua.

Kontakizunak geldialdiak egiten ditu xehetasun guztietan, ez bakarrik paisaiari dagokionez, aldiz, baita pertsonaia horien mugimendu eta keinuei dagokienez ere. Kontaketa lasai garatzen da, xehetasun guztiek sekulako garrantzia duten eszenen jarraitasunari esker. Eszenara jotzeko baliabide horrekin, istorioaren denboraren eta diskurtsoaren denboraren arteko isokronia sentipen bat ematea lortzen da. Isokronia sentipen hori, argi dago, kontaketa teknika baten emaitza da, eta halakotzat behar da hartu. Isokronia berez da ezinezkoa: eleberri honetan, kontaketa bi egun inguru hartzen ditu, eta testuak ehun eta hoge

orri eskas ditu.

Eszenara jotze horrek bigarren ondorio bat ere badu: puzzle tankera ematen dio eleberriari, eta irakurleak behar den lekuan, bestelako piezekin loturik, ipini behar ditu piezak. Kontalariak ez du inoiz eszenen artean dagoen loturazko elementurik ematen. Hori egiteko, ez duen altuera batera igo beharko luke, eta kontatua interpretatu. Baina kontalaria pertsonaien altuera berean mugitzen da beti, eta haien orainaldi berean. Eta pertsonaien ekintzak interpretatzen ez dituelarik, jardura sinpleenak ere baduela esanahi sakon bat ematen du, esanahi sinbolikoa. Ohikoa denetik urrutitze baten, arrote baten gisara defini daitekeen efektu bat sortzen da.

Komeni da orobat kontaketa honetan pertsonaiek nola eragiten dioten elkarri aipatzea. Pertsonaiek zeinen gutxi hitz egiten duten elkarrekin da Pello Lizarralderen kontagintzaren ezaugarri deigarrienetako bat. Ez diote elkarri ia hitzik esaten, eta esaten dituztenak, askotan, konbentzionalak dira guztiz: agurrak, adeitasuneko esaldiak, berehalakoaren gaineko aipamen laburrak, aparteko edukirik gabeak. Pertsonaiek ez dituzte istorioak kontatzen, ez dute beren iraganeko aipamenik ia egiten. Pertsonaia hauek mugitzen diren munduan, hizkuntzaren “funtzio fatikoa” deritzana dela nagusi ematen du. Hizkuntzak harremana sortzeko eta harreman horri eusteko balio du, ez ordea edukiak, iritzirik edota ideiak trukatzeko. Pertsonaien arteko komunikazioa, neurri handi batean, hitzezko ez diren elementuen bidez gauzatzen da, keinuen bidez. Ez baitiote elkarri hitzik egiten, badirudi pertsonaia hauek bakardade erabatekoan daudela, baina berezkoa duten bakardadean, ez egoeraren araberako bakardadean. Gauza ez da ezin direla elkarrekin komunikatu, aitzitik, gertatzen dena da hizkuntzak ez duela komunikabide baliorik benetan funtsezkoa den hura komunikatzeko: beren bakardadea, iristea espero duten iparralde bateranzko ihes moduan ulertzen den bizitza baten zentzugabekeria, azken finean ez baita hori azken helburua, beste helburu baterako geldiduna baizik, eta beste helburu hori, aldi berean, beste geldiduna bat izango da, eta horrela etenik gabe.

Lizarralderen kontagintzan hain

sarri agertzen diren geltokiek, trenek, bidaia forma desberdinek, sinbolikoki, errealitate horretara igortzen gaituzte.


Pertsonaiek ihes egiten dute, mugitzen dira, baina ez dira inoiz inora iristen, abiapuntuan daude beti. Eleberriaren bukaera harrigarria sentipen hori areagotzen du. Joxe, Abel eta Lainez gurutzatu nahi duten mugatik gertu daudenean, guardia zibilaren bikote batek altoa ematen dio haiek doazen autoari. Ihesa tragedia bihurtzen da guardiei aurre egin behar dietenean; pertsonaiek ihesean jarraitu behar dute. Abelek, kontaketa bukaeran, arrasto batzuk aurkitzen ditu lurrean, bere oinatz propioen arrastokak, baina bera une horretan doan norabidearen kontrako bidean. Ihesaldia joan-etorriko bidaia izan da, Abelek egindako bidea desegin du, eta abiapuntura itzuli da.

Zikloa bukatzen da, eta zikloarekin batera bukatzen da eleberria, baina ez istorioa.

Euskarazko literaturak duen tonu batez bestekoan –tonu duina baino neutroa da–, Pello Lizarralderen obra aipagarria da bere nortasunagatik eta oinarri dituen hatsapenak garatzean duen koherentziagatik, kontzesioak gorabehera, esan den bezala. Obra hotza da itxuraz, sentimentalismo gutxi asko erromantikoetatik urrun dagoena, baina aberatsa da ñabarduretan, eta ñabardura horiek oihartzun ugari eta efektua eragiten diote irakurleari. Aldi berean, oso literatura zinematografikoa da, ikusmenaren alderdia baita Lizarralderen obran lehentasuna duenetako bat.

Gutxituko ahal du egunen batean, hala espero dut, euskarazko literaturaren obra nagusiak gaztelaniara itzultzeko politika koherente batek, neurri batean bederen, literatura horren inguruan dagoen ezagutza falta eta ezin ulertua. Itzulpen horien artean Pello Lizarralderen obrak leku aipagarria behar luke izan. Itzultzaileak gai izan beharko luke, euskal testuaren ñabardura guztiei antzemateko ez ezik, ñabardura horiek denak bere aberastasun guztiaz gaztelaniara eramateko. Hainbeste merezi du Lizarralderen obrak.

# AIREZKO EMAKUMEAK.



Airezko emakumeak  
**Felipe Juaristi**  
 Orr: 296  
 Saila: Narratiba  
 ISBN: 84-9746-130-4

Sara Vidalek ez zuen ihes egin alemanak, gerran, Odessa hiriko atariraino iritsi zirenean. Aukera eman zioten trena hartu eta alde egiteko, gizon-emakume askorekin batera, arriskutik libre izango ziren tokiren batera. Ez zuen ihes egin, bere burua hilobi bati lotua ikusten baitzuen, jakinik ez zela Kauffmannen hilobi, baina hori gutxienez zaitzaion, mundua orduan hilobi handia zenez, hilobi bakarra zainduduz guztiak zaintzen zituela uste baitzuen. Ez zuen ihes egin alemanak bila etorritakoan; biolin kutxa, maleta bat eta soinean eramateko arropa gutxi batzuk hartzeko aukera eman zioten. Bagoi zikin batean sartu zuten, bera bezalako beste berrogei emakumerekin batera, haiek ere arrazoi bategatik edo besteagatik Odessa hirian geratuak, haiek ere ihes egiteko gogorik gabeak, bazekitelako edo bestela susmatzen zutelako ihesaldi guztien amaieran hilobi bat zegoela, lurrezko hilobi edo airezko hilobi. Trenak abiadura hartu eta atzean utzi zuen hiria, eta gauzez lautadan barrena zihoalarik, Sara Vidal, biolina kutxatik atera eta, joka hasi zen Scriabinen Gauekoa. Gauak are gehiago gautu zuen.

Identitate komunitaristak berdintasuna eskatzen du, batasun kulturala: historian, hizkuntzan, erlijioan, literaturan, artean edo zientzian. Nazioa gorputz bakarra bezalakoa da, arima propioarekin, ahalmen eta indar aldazkinekin. Beraz, babestu beharra dago kosmopolitismotik, desberdinengatik: azken finean, kutsaduratik eta lohikeria kulturaletik. Eta horrelako antolaketa batean soberan zeuden Uriel de Rua bezalakoak: “sekula ez baitzen izan benetako kristau, eta sekula ere ez zen benetako judu izango”

Haren aniztasuna bestelakoa izan behar:

“min askotako partaide  
 pairamen askoren ikusle  
 tragedia askoren lekuko”

Eraikuntza etniko guztietan garbitasun horrekiko atxikimenduak erabakiko du partaidetza. Alemanian, esaterako, juduek ez ziren bertakotzat jotzen, kanpotik etorritakotzat jotzen baitziren. Horregatik ez zuten nazionalitate alemaniarra Alemanian izan, belaunaldiz-belaunaldi bertan bizi arren, nazionalitatea izateko baldintza natural batzuk eduki behar baitziren, juduek ez zeuzkatenak, jakina.

*Beren buruak  
 haragizko kandelak izan  
 ondoren ke bihurtuak  
 baitziren herrietako  
 plazetan, hodeiek zerura  
 eramana gero eta euri  
 gisa itzuliak berriro  
 lurrera, haragi errearen  
 usaina itsatsita utzirik  
 bazterretan*

Non da, orduan, juduen naturaltasuna. Beharbada etengabeko emigranteak izatean. Nazio sortu berrietan nazionalitatea hartzeko aukerarik ez bazuten, emigrante izateak ematen zien naturaltasun bakarra, hori zen bere jatorria: emigrazioa, diaspora. Eta nazionalitate naturala galdu ez daitekeen bezala, diasporakoak izatea baldintzatzen zuen haien izaera. Heriotzak baino desagertarazi ezin zuen naturaltasuna.

Fichtek esana: herri batek originala eta kutsatu gabekoa izaten jarraitu beharra dauka. Hor soberan daude desberdinak. Edo beste judu batek, Feliperen hitzetan, esaten duen bezala (judua juduarentzat, Spinola lekuko, beti otso izan dela baieztatuz): “Jakob Gomezek esan zuen Jainkoak juduei emandako agindu eta legeei iseka egiten zienak ez zuela merezi juduen artean bizitzerik. Jakob Gomezek esan zuen ikusia zuela berak sagar ustel

baten kariatz itsasontziko guztiak usteltzea, eta gertatuko zela da Rua, sagar ustela bezala, juduen ontzitik botatzen ez bazuten”.

Tradizio juduarentzat Jainkoak mundua testuaren bidez sortu zuen. Beraz, gertatzen zena, ezinbestez, onartu beharra zegoen. Hala ere, juduek bere sinesmenaren biktima bihurtuz, historiaren objektu sentitzen ziren, eta diaspora ororen arriskua nostalgian itotzen zuten. Esanguratsua da, oraindik, austrohungariar inperio desagertu zenean, enperadorearen soldadu bakoitzak inperioaren ezabaketarekin batera nazio berriaren sorrera ospatzean, kasik guztiek zeukatela nazio berria beren odola haren alde isurtzeko, kasik guztiek, juduek izan ezik: bakarrik austrohungariar inperio gelditzen zitzaion oroimenean, zegoeneko itzala baino ez zen inperio zaharkitua. Horregatik ziurrenik, beste guztiek egindakoengandik ikasita, gero eta desberdinago sentitzen hasi ziren, eta diasporarako amesgaiztotik ateratzea amets nazionala bihurtu zuten –are gehiago holokaustotik sortutako tragedia politiko eta sozialaren korapilotik askatzeko– Ezekiel-en 11, 17ko hitzak gogora ekarriz: “*Nik herrien artetik bilduko zaituztet eta Israelgo lurra emango dizuet*”.

Baina Felipek hain ongi deskribatzen duen da Rua moduko galtzaileei oraindik memoria gelditzen zitzaion: “Bibliako lerroen artean azaltzen diren pasarte horietakoak balira bezala, memoriaren azpilduretan ihesi gorde ez ziren pasarteak balira bezala”. Edo musikaren bidez, musika asko dagoelako Feliperen obra honetan (biolina, Albaren bihotza bezalakoa, maitasuna, geometria hutsa), musika memoriaren tresna bihurtzen baitu: “Da Ruak bazekien gure bizitzak isiltasunera doazen musikak direla”.

Edo minaren inguruko jakinduriaren bidez:

“Da Ruak bazekien jauzika, mendietatik behera euri ura bezala, erortzen den mina garela, eta inon biltzen ez, hemen eta han sakabanatzen baita eta itsaso mineraino edo minaren itsasoraino zabaltzen, min sakonak itsasgaina ibilbide bihurtzen baitu”.

Hobbesek gure izaerari buruz *Leviatan* eta *De Civesen* idazten duenean gizakia sentimenduen menpe dagoela aldarrikatzen du, eta elkarrekin bizitzeko, bakea bilatu nahian, gizakiak duen sentimendu handienera joko du lagungarri: izua. Eta bizia galtzeko izuari esker elkarri alferrikako mina egitea saihestu ahal izango diogu. Bestela ere, edonon dagoelako mina: “Da Ruak bazekien min buztin, min busti garela, gizakia sortzen eta sortzen ari delarik, gizakia bere irudira moldatzen eta apaintzen duela, gizakiari min eginez etengabe”.

Bidaiek ere zentzu berezia dute Feliperen “Airezko emakumeetan”, kanpoko eta barneko bidaietan mur-

## ESTEBAN ANTJUSTEGI

Ene ustez aurkezten dugun liburu hau identitateari buruzko liburua da, identitate bakarrez, identitate anitzez, identitate exkluzibitatez eta identitate konpartituez ari zaigun lan ederra. Eta identitate bakoitzari dagokion leialtasunaz.

Leialtasuna hurbilean ditugun gizakiez sentitzen dugun sentimendua da, talde bereko partaide garen / edo garelaren sentitzen dugun neurrian, bizi dugun / edo bizi dugula uste dugun zentzuzkoak sortzen duen atxikimendua.

Baina, zein leialtasun izan behar zuten “kristau zirenak itxuraz eta hebrear min eta zinez zirenak”; “federik gabeko kristau eta jakiterik gabeko judu zirenak”; kristauentzat judu eta juduentzat kristau zirenak”; Portugalen portugesez eta Gaztelan gaztelez hitz egiten zuten arren, inondar ere ez zirenak, hebrear ere ez”

Zein leialtasun mota eska zitekeen juduei?

Leialtasun politikoa neurtzeko oinarritzko galdera hauxe litzateke: Komunitatearen alde zer egiteko prest egongo zinateke? Edo, zer espero dezake zuek komunitateak? Edo, baita ere, zer espero duzu komunitatetik? Jon Fitzgerald Kennedy-ren hitzak datozkit gogora: Ez galdetu zer egingo lukeen Amerikak zuegatik, galdetu zuen buruei zer egingo zenuketen Amerikaren alde?

Antolamendu identitario orok bi momentu dituzte. Lehenengo mugimendua bertako kideekin elementu komunak aurkitzean datza, bigarrenaren, “gutasuna” gauzatu ondoren, “besteekin” bereizketak egiteari lotzen gaitzaizkion bitartean. “Gu” “besteekin” aurrealdean jartzen gara. Aurreko mugimendurekin egoismoa utzi eta nia bakarra dastatzeari uko egiten

diogu, besteenganako hurbiltasuna eta elkartasuna agertuz. Baina bigarren mugimenduaren bidez –oraingoan taldearen izenean– bakarrik izateko borondatea berreskuratzen dugu berriro, eta, gurea bakarrik dastatuz, beste taldeekiko ez dugu ez hurbiltasunik ezta elkartasunik erakutsiko. Komunitate orok, beraz, elkartzeko eta bereizteko borondatea adierazten dute: maitasuna batetik, eta gorrotoa bestetik. XV. mendearen bukaeran sortutako eraikuntza komunitario berrietatik egotzitako “besteez” ari zaigu Felipe liburu honetako lehenengo kapituluak. “Beren buruak haragizko kandelak izan ondoren ke bihurtuak baitziren herrietako plazetan, hodeiek zerura eramana gero eta euri gisa itzuliak berriro lurrera, haragi errearen usaina itsatsita utzirik bazterretan”.

Bigarren mugimendu horren bidez, gainera, gizabanakoa –ez bere pertsonaren bidez, nazioaren bidez baizik– mundu guztitik desberdina sentitzen da. Eta momentu horretan agertzen da leialtasunaren perbertsioa: bere probetxu propiorako zenbait ekintza onartuko ez lituzkeen bitartean, eta hauez lotsa ere sentituko lukeen bitartean, –oraingoan– ekintza berberak, komunitatearen onerako badira, baliagarritzat joko ditu. Hortaz, lapurreta, gezurra edo injustizia bertute bilakatzen dira. Kasu honetan, egoismoari –nazionala egiten denean– zintzotasuna deitzen zaio.

Baina, ba al dago aberria maitatzeko beste modurik, Camus-ek “Eskutitzak lagun aleman batentzat” idazkian adierazten duen erara edo: “Nahiko nuke nire aberria maitatzea justizia maitatzeari utzi gabe. Ez dut nahi nire aberriarentzat inolako handitasunik, eta are gutxiago odola eta gezurraren handitasuna. Bertan justizia bizitzea, eta justiziarekin bizitza ematea baino ez dut nahi.”

# Felipe Juaristiren lan berria.



Felipe Juaristi.

giltzen gaituelako, besteak beste, Irisarri itsasgizonak Juvenalia Mickevicius laztantzen eman zuen gau hartan bezala, "itsasoak kostaldeko labarrak eta hondartzak miazkatuz jaten dituen bezala. Gau hartan Irisarrik Mickeviciusen biolina jo zuen, hatzez hatz, hariz hari. Haren gorputza, geografia ezaguna balitz bezala, ibili zuen behin eta berriro, garai batean kortsario gisa, gisa-haragi sal-erosketan, itsasoa Baionatik La Habanaraino eta batzuetan Floridaraino ibiltzen zuen bezala, tarteka bidean geldituz, bideko portuetan aingura boteaz, atsedean hartzeko, ontzi-bizkarra garbitzeko, ustel usaina kentzeko, kroskoa pintatzeko". Feliperi irakurtzekoan gustura bidaiatzen da.

Frantziako iraultzara ere gerturaten gara liburu honekin. Lehenago agertutako eraikuntza komunitarioaren parean, elkargo politikoa borondateen batasunik sor daitekeela gogoratzen zaigu, kasik kontratu sozial gisara. Nazionalitatea, beraz, ez litzateke determinazio natural bat izango. Bat ez litzateke, esaterako, frantses jaioko, egin egingo litzateke frantsesa, borondatezko atxikimenduaren bidez. Nazionalitatea, beraz, hiritargoaren kontzeptu barruan ulertzen da, printzipio batzuekiko atxikimendu razionalean, afektuzko loturan baino gehiago. Nazioa, zentzu iraultzailean, gizakien eskubideak gauzatzeko osatzen dugun komunitate demokratikoa litzateke.

Nazioaren ikuspuntu hau, atxikimendu etnikoan baino gehiago, kosmopolitismoaren hodeiertzean jorratzen da: eskubidez, gizaki oro lotu daiteke horrelako naziora, haren printzipioak Gizakiaren Eskubidearen Aldarrikapenean aurkitzen baitira. Horrelako elkargoa, betiereko bakearen moldetik abiatuz, noraezko juduaren pausaleku bilaka zitekeen.

Baina, Rousseauk defendatutako "erlijio zibilaren" izenean, bertute zibikoa praktikatzuz, Maximilien Marie

Isidor Robespierre eta Iraultza frantseko zenbait gidari jakobinok, 1793an, egutegia aldatzeari ekin zioten (Brumario, Floreal edo Termidor bezalako izen ponpoxoak jarritz). Baina ez hori bakarrik, Herri-Osasunerako edo Herri-Salbaziorako Batzordea izeneko erakundea sortu eta susmagarrien legea martxan jarri zuten, gillotinen gozameneko.

Eraiki zuten terrorea zorigaitzokoei zor zitzaizen errukiaren izenean, eta herriak jasaten ari zen oinazean justifikatzen zuten. Sentimenduak arrazoia- ren gaintik ezartzen dituen joeraren paradigma hau Robespierren hitzotan adieraz daiteke: "*par pitié, par amour, pour l'humanité, soyez inhumains!*" Egoera nahasi horretan kokatzen ditu Felipek lau emakume: Circe, Virgilia, Safo eta Egea. Garaiaren gatibu bilakatuko dira, iraultza, *aux armes citoyens*, terrorea, *La Marseillaise, marches*, erreazioa... eta Napoleon.

*Bidaiek ere zentzu berezia dute Feliperen "Airezko emakumeetan", kanpoko eta barneko bidaietan murgiltzen gaituelako*

Beti musika lagun, heriotzako orduan ere bai.

Hala ere, hor diraute, oraindik, bere enigma eta erakartasun guztiarekin, Termidorreko 8an Robespierrek Asanblada frantziarrean egindako bere azken diskurtsoko azken hitzak: "*zer eragotzi dakiok arrazoiaren duen eta bere herriaren alde hiltzeko prest dagoen gizaki bati?*".

"Urteak isuri ziren, diosku Felipek, odola bezainbeste, elur ura bezainbes-

## FELIX IBARGUTXI

«Libre izan nahi duten gizakien historia da». «Jazartuak, jipoituak, kartzelaratuak izan diren emakumeak ekarri ditut eleberrira». «Musikaren historia ere bada liburu». Hiru era honetara definitu zuen Felipe Juaristik atzoko aurkezpenean bere Airezko emakumeak nobela berria.

Denbora asko zeraman Juaristik helduentzako nobelarik atera gabe. 1990ean Arinago duk haizea, Absalon plazaratu zuen eta harrezkero idatzi dituen prosazko lanak haur eta gaztetxoentzako bildumetan eman ditu argi-tara.

Hiru atal ditu eleberriak, historiako garai ezberdinetan kokatuak. Lehenbiziko partean, XVIII. mendeko gorabehera batzuk agertzen dira, Inkisizioak eragindako oina- zeak tartean; protagonista nagusia, berriz, biolin jotzaile bat. Bigarren parte, berriz, Frantziako Iraultza garaian dago kokatua;

hango izua da kontagai nagusia. Eta hirugarren atalean Auschwitz agertzen da.

Bigarren eta hirugarren ataletan emakumeen kontrako jazarpena ageri da etengabe. Eta, hain zuzen ere, gertaera historiko batek piztu zion gogoia Juaristiri horrelako liburuari ekiteko. «Emakume famatu baten historia dago eleberraren oinarrian -esan zuen atzo idazleak-. Alma Mahler, Gustav Mahler-en emaztea izan zenaren tragediaren berri izan nuen idazteko gogoia piztu zitzaidan. Emakume hura, Frantziako Dijon-en harrapatu zuten naziek eta Auschwitzeko konzentrazio-esparrura eramane zuten. Presondegikoek, ezagutu eta Mengele medikuak biolin bat eman zion, jo zezan. Hango emakumeen abesbatzan zuzendari moduan jardun zen eta azkenean bertan hil zen, tifusak jota».

te, negarra bezainbeste. Urteak igaro ziren, baina ez zen denborarik igaro, ez zen bekaitzaldirik ez gorrotoaldirik ez izualdirik igaro. Lehengo tokian geratu ziren haiek nare eta bare, lehengo tokian sustraiak gero eta sakonago, gero eta lodiago eginda».

Musikak ez du aberrik. Eta Auschwitz-eko sarreran "lanak aske egingo zaituzte" lema idatzi zuten.

Hauek ez ziren bake garaiak, ez juduentzat, ez besteentzat.

Hannah Arendt datorrit gogora. 1933an alde egin behar izan zuen Alemaniatik, baina bere idazki guztiak garai horietako oroitzapenez markatuta daude. Nola iritsi ahal izan genuen hain muturreraino behin eta berriro galdetzen du, eta kasik ohartu gabe milioika hildako genituen. Biktimen memoria ez galtzeko apustu garbia egin zuen emakume honek, eta hauen sufrikarioa agerian uzteko ahaleginak eta bi burutu zituen bizitzan zehar, halako tragediarik berriro inoiz ez gertatzeko asmo sendoa hartuz. Hala ere, bere buruarekiko eta haren garaikideekiko erreprotxea sarritan azaltzen du, bere garaian pasibotasuna azaldu izanagatik eta ideologia totalitario hari ateak garaz ez ixteagatik. Hortaz, 1933ko otsailaren 27ko eguna ekartzen du gogora, Reichstag (Parlamentu alemaniarra) erre zuten eguna, "momentu horretatik aurrera bera ere erantzule sentitu zelako". Geroztik, hitza ere galdu genuelako.

"Gogoramenak ahazmena dakar berarekin -idazten du Felipek- eta ahazmenak gogoramena, gauak ez luke zentzurik egunik ez balego, eta egunak gauaren beharra du, den bezala izateko, gaua eta eguna, biak baitira denbora neurrigabeak guregana iristeko dituen bideak: bizitza eta heriotza bideak, ase eta gose bideak, amets eta eldarnio bideak, itxaropen eta etsipen bideak". Eta beste lau emakume: Alma, Klara, Sara eta Agnès.

Juduentzat, Jainkoaren bilaketa eta bere justiziarena ez da oraindik bukatu. Kristautasunarentzat, oster, bere mesiasen etorrerarekin, ez du zentzurik gehiago itxarroteak. Gizaki bakar bat dator guztion bekatuak garbitzera. Juduen ustez, aldiz, gizaki bakoitzak norberaren erredentzioaren alde egin behar du lan; inor ez da besteengatik hiltzen, lehendabizi bere burua salbatu beharrean dagoelako. Hor dirau gizakiak, ametsarekin, sufrikarioarekin, maitasunarekin edo gorrotoarekin bidea egiten; eta musikarekin, beti musika lagun.

Errekonozimenduak justizia banatzailearen auzokideak dira, errekonozimendua ditugun zor intelektualak ordaintzeko erabiltzen dugun txanpona baino ez delako. Horregatik da hain inportantea ordaintzea.

Ba da esaldi bat Talmud-en, non esaten den jakintsu batek bere iturriak errekonozitzen dituen erredentzio egunetik gertuago aurkitzen garela. Hemen jakintsu literarioa Felipe da, ez dakit liburu honen irakurketak erredimituko gaituen, baina bai, ziur naiz, pentsatzera bultzatuko gaituela, eta ariketa gazi-geza horrek -gutxienez- askeago egingo gaituela.

Nik, dena den, errekonozitzen dut Feliperen maisutasuna, eta ofizio on horren adibidea liburu hau gauzatzeko eraiki dituen pertsonaiak dira, behin eta berriro kolokan daudela jabetzen diren gizabanakoak direlako eta zurztasun (orfandade) senean murgilduta bizitzea zer den oso ondo dakiten gizakumeak direlako.

Eta narrazioaren indarrak inguratu egiten zaituenez, berehala murgiltzen zara istorioan, kontaketa hunkigarria gertatuz.

Eta zer gehiago espero daiteke liburu batetik?

Zorionak Felipe, eta eskerririk asko.

# Apirilean eman ziren EREIN-EUSKADIKO KUTXA eta DONOSTIA, "OPERA PRIMA" Sariak




Erein argitaletxeak EREIN-EUSKADIKO KUTXA eta "DONOSTIA, OPERA PRIMA" Narratiba Sariak antolatu ditu, euskaraz idatzitako eleberriak sustatzeko asmoz, Euskadiko Kutxa eta Donostiako Udalaren babesarekin.

Sari hauek bi urtean behin emango dira. 2005an izango da, beraz, hurrengo emanaldia. 2004ko otsailean zabalduko da 2005eko sarietarako deialdia.

## EREIN-EUSKADIKO KUTXA NARRATIBA SARIA 2003

*Hamar urte barru*  
Joxe Belmonte




1973an egindako argazki bat dago eleberriaren argumentuaren oinarrian: lau mutil gazte ageri dira argazki horretan, Gorbeia mendiko gurutzearen aurrean. Hamar urteren buruan, 1983an beraz, berriro ere elkartuko direla agindu diote lau mutilek elkarri. Azken urteetan, ordea, izugarri urrundu dira elkarrengandik: bata erbestetik itzuli berria da, ezker abertzalearen munduan murgildurik bestea, talde bakezaleen oinarrietara lerrotua hurrengoia, eta droga, prostitutak eta polizari emandako informazioa txandakatzen dituen azkena. Politikoki, sozialki eta sentiberatasunaren aldetik lau muturretan jarrita daude, beraz, eleberriko protagonistak. 1979tik hasita, hurrengo urteetan Euskal Herriak bizitutako zenbait pasadizo dabil narrazioan bueltaka: gerra zikina, atentatuak, manifestaldiak eta bakearen aldeko jarduerak. Zarata eta burrunbots horren zimurretan, berriz, bizitza, maitasuna eta mundu gogorrak. Bilbo hiritzarraren bihotzetik kontatuta dago eleberria, gordin eta gogor.

"Hard times": heriotza garaile.

## DONOSTIA, "Opera Prima" SARIA 2003



Komunera joan eta alboko bainugelaren norbait zegoela konturatu nintzen batean, jakin-minak bultzaturik, begia paretaren kontra jarri eta zirrikitutik begiratu nuen. Ikusi nuenak ia amasarik gabe utzi ninduen. Berebiziko emakume bat zen nire bizilaguna eta biluzik zegoen, bainuontzira sartzeko asmotan. Badakit ez dudala ondo egiten, baina orduan sentituriko zirrarare beste behin dastatu asmoz konponketa atzeratzea erabaki nuen eta horrela nire hasierako asmo ona bertan behera geratu zen. Badakit espia nazkagarri bat bilakatu naizela, baina bakardadeak honelako gauzak egitera bultzatzen nau batzuetan. Ez daki berak ongi zenbat atsegin dudan bere biluztasuna! Horrela ikustean, bera bezain ahaltsua sentitzen bainaiz. Beti erritual bera egiten du Iosunek. Bainugelara sartu eta, argia piztu ondoren, ispiluaren aurrean geratzen da eta adi-adi bere aurpegi guztia aztertzen du.



"Urduri zaude oso.

Laurarekiko harremanak hondoa jota daude. Badakizu hurrengo galdera ez dela ea noiz izango duzuen seme-alabarik. Hurrengo galdera zera izango da, ea zer egingo ote duzuen amaiera ahalik eta samurrena izan dadin.

Egun batetik bestera emaztea zein maitalea galduko dituzu. Batak ziurtasuna ematen zizun. Besteak sexua. Batak zurekikoa amaitzea erabaki du. Besteak laster hartuko du erabaki bera.

Eta zera pentsatu duzu, ezin izan duzula ezer egin gauzak horrela izan ez daitezen. Edo bai?

Ez dakizu. Ez dakizu, eta ez duzu horretan pentsatu nahi.

Etorriko da etorri beharrekoa.

Eta orain Jessica da etortzekoa".